

Komunikazioa

Txillardegia edo Fraga



Ekografiak
Aritz Galarraga

Txillardegia hil ondorengo albistegia ikusten ari nintzela pentsatu nuen. Larunbat eguerdia zen, goizean ezagutu genuen heriotza. Bada- ezpada, arratsera arte itxaron nuen, nire gogamen makurraren

asmazioa ez zela konprobatzeko. Baina, ez, berdin gertatu zitzaidan, berriz pentsatu nuen gauza bera. Berria eman zuten ETB1en, noski: eguerdi-arrats, aurrean baino atzerago, txotx denboraldiaren hasiera eta eguraldiaren ondoren ere bai. Bazkalorduko albistegian, 24 minutu pasatu nituen pantaila aurrean eman zuten zutenerako.

Eta bai, tratamendua izan zen txukuna, Elixabete Garmendiak ondutako bideo kokorra tarteko; arratsean, bideoaz gain, irudiak eta adierazpenak. Eta albistegiaren ondoren, Txillardegiren

gainen dokumental mamitsua, 1992koa. Baina pentsatu nuen: hildakoa, adibidez, Manuel Fraga Iribarne balitz, 24. minutuan emango zuten berria? Eguraldiaren atzetik titularretan? Ez nuen uste igande gauean hilko zenik. Halako pentsamenduak ibiltzea gaitzetsi nion neure buruari. Baina poztu nintzen. Ez heriotzagatik, bistan da, ez dut inoren heriotza desio, ezta hainbat heriotzaren azken erantzule izan den batena ere. Poztu nintzen, zalanztatik aterako nintzelako.

Astelehenean ase nuen jakinmina: Fragaren heriotzak ireki

zuen ETB1eko albistegia, zazpi minuturekin. Tarte bukatzeko gainera, Izurako lehengusuak mintzatu ziren, Fragaren irudi azukreztatua kasik etxekoa eginenez. Baina kritika ez da hainbeste bi heriotza horiei ETBk emandako tratamenduari —Fragarenaz asko badago ere esateko—; bai, ordea, eman dien garrantziagatik. Batek esan dezake kultur eragilezat hartu zutelako eraman zutela hain atzera Txillardegia. Eta orduan zergatik nabarmendu besteren gainetik ETA eta HB sortu zituela? Batek argudia dezake ETA sortu zuela. Bai-

na kristautasunak ekarritako guztiaren erruduna nor da, Nazaretoko Jesusito? Haren jaiotza ospatu berri dugu, ez ahantzi. Batek esan dezake haren ideiek jende asko hil duela. Nik ez dut sekula ikusi ideia bat kaletik, pistola eskuan, jendea hiltzen.

Euskarazko albistegi hori egiten ari direnek ez al dakite Txillardegia eta bera bezalako eskukada bete lagunengatik garelako garena, gaudela gauden lekuan? Horiengatik egiten ari direla euskarazko albistegi hori bera ere? Txillardegia edo Fraga. ETBk egin du bere hautua. Nik ere bai.

ETBko langile batzordeak exijitu du Nafarroan kate guztiak jartzea

LAB: «UPNren esanek garbi utzi dute borondate politikoa dela kontua, eta ez ekonomikoa»

Urtzi Urkizu

ETBko langile batzordeak *Navarra Directo* saiotek kaleratuko dituzten langileei elkartasuna adierazi die, ohar baten bitartez (hilaren 27an hamabi langile kaleratuko dituzte). «ETBko langile batzordeak saio hori ezinbestekotzat jotzen du ETBk nafar jendeari ere eskaintzen dion informazio zerbitzu aproposaren bidean, telebista publikoak eskaini behar duen ildotik». Bestalde, langileek ez dute ulertzen nola ETBko zuzendaritzak uko egiten dion Nafarroan LTD sarea hedatzeari, eta «bere ikuslego natura-



Miguel Sanzek eta Patxi Lopezek Nafarroan ETBren presentzia normalizatzea hitzartu zuten 2009ko uztaillean. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

laren laurden bati bizkarra ematen». Ikuspegi ekonomiko batetik ere, edozein enpresak horrelako erabakia hartzea ulergarritzat jotzen du langile batzordeak. «Hau da, bere bezero potentzialaren zati handi bat galtzea onartzea, arrazoi ideologikoengatik». Hala,

langile batzordeak ETBko zuzendaritzari exijitu nahi dio *Navarra Directo* programari bere horretan eusteko, egitura eta langile guztiak. «Eta ETBko kate guztiak Nafarroan LTD bidez hedatzeko baliabideak jartzeko, behingoz». EITBko LABek, era berean, Na-

farroako Gobernuak eta ETBk erabili zuten negoziatorako dokumentu teknikoak lortu eta jarri du sarean (<http://eitb.labsindikatura.org>). Dokumentuan jasotzen denez, azpiegitura teknikoaren gastua 2010erako 856.000 eurokoa izango litzateke, gehi BEZ eta kanton zergak edo tasak. EAKo militante batzuek euren aldetik hedagailu bat jartzeagatik sortutako iskanbilaren inguruan, berriz, UPNko arduradunen esanek eta Espainiako Gobernuaren ekimenak garbi utzi dute auzia ekonomikoa baino gehiago politikoa dela; hala uste du LAB sindikatuak. «EAEko zein Nafarroako gobernuen negoziazioaren lardaskeria ere nabarmen gelditzen da. Soilik ETB1 eta ETB2 aurreikusten ziren, dagoeneko ETB3 eta ETB4 martxan zeudenean. ETB3 euskara hutsez eta nafar gazteentzat oso garrantzizua izan daitekeenean».

'Nickdutnik' saioaren azken denboraldia gaurtik ETB3 katean

QR kodeak erabiliko dituzte aurreneko aldiz, eta telebistatik webgunera mugitzeko aukera emango dute

U.U. Donostia

ETB3 kateko *Nickdutnik* saioak bere azken denboraldia estreinatuko du gaur, 23:00etan. Interne-

ten ere ikusiko ahalko da programa *nickdutnik.com* eta *eitb.com* webguneetan. Denboraldia osatuko duten 11 ataletan, Euskal Herrian sortutako Interneteko proiekturik onenetako batzuk ezagutzeko aukera izango dute ikus-entzuleek. Teknologia, ikus-entzunezko euskarri berriak eta bideo jokoak ere izango dituzte hizpide.

Berrikuntzen artean, QR kodeak aipa daitezke. Kode horiekin

telebistatik webgunera erraztasunez mugitzeko aukera izango dute ikusleek.

Halaber, sintonia eta irudi berria estreinatuko ditu gaur ETBko programak.

Sare sozialen bidez ikusi ahalko da saioaren azken denboraldia: Twitterren *@nickdutnik* eta *facebook.com/nickdutnik*.

Aurreko denboraldietan bezala, Arantza Garces izango da saioko aurkezlea.



Arantza Garces aurkezlea. ETB

→ Laburrak

Esloveniako 9 hedabide, sarean ordainezkoak

INTERNET Eslovakiako Piano Mediak martxan jarritako Interneteko ordainezko sistema beste herrialde batzuetara zabaltzeko asmoa dute, eta harremanetan daude Europako hainbat komunikabiderekin. Eslovenian, esate baterako, hemendik aurrera beheratzi komunikabidetako edukiak Interneten eskuratzeko kuota bat ordaindu beharko da. Piano Mediaren sistema bera erabiliko dute Esloveniako hedabide horiek.

'Mihiluze Traka', larunbatetik ETB1en

TELEBISTA Larunbat honetatik aurrera ETB1ek *Mihiluze Traka* lehiaketa emango du, 21:30ean. Programa bakoitzean euren artean lotura estua duten hiru gonbidatu ezagun eta lehendik saioa ezagutzen duten hiru lehiakide ariko dira. Lehen programan Oinatz Bengoetxeak, Koteto Ezkurak eta Mikel Goñik parte hartuko dute. Gonbidatuek botilero lana egingo dute. Lehiakideek 5.000 euro irabazteko aukera dute.

Berria.info

Berria.info-ko Berria TBn ikus daitezkeen azkeneko bideoak:

- Txillardegiri azken agurra.
- Iruñerrian ETB ikusteko hedagailua.
- Dokumentala: Hego Euskal Herriko alkateen mugimendua.
- Jon Anza zenaren senide bat epaitu dute.